

GOBERNU BATZARRA

2014. 01. 17

Beh. Beh.Alkatea:	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko urtarrilaren hamazazpian, goizeko 10:00etan
Lore Agirre Zipitria	Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
Zinegotziak:	
Asier de los Rios Soraluze	
Rosa M. Urkola Irigoien	1.- Aurreko akta onartzea.
Idazkaria:	2.- Tolosa Lanekin azken ordainketa.
Jose Luis Unanue Ugalde	3.-J.U.I.ren eskaera: Zergabilketa exekutiboan duen zorra zatikatzea
Kontuhartzaitzako Teknikaria:	4.-Ataria proiektuaren bideragarritasunen plangintza eta proiektu komunikatiboa.
Paulino Alonso Eraso	5.- 39/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2013ko urtarrilaren 10ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosa Lanekin azken ordainketa.

Bi mila eta hamabiko abenduaren 12an, Eusko Jaurlaritzako Gobernu kontseiluak onartu zuen **TOLOSA LANEKIN** izeneko proiektu pilotua, zeina zuzenduta baitago udalerrri honetan sarrera bermatzeko errenta jasotzen duten pertsonak lanean txertatzeko.

Bi mila eta hamabiko abenduaren 19an, Tolosako udalak erabaki zuen onartzea Lanbideko Laneko Aktibazioko zuzendaritzak igorritako proposamen teknikoa eta ekonomikoa.

Ilido horretatik, hainbat enpresek enplegu programako partaideak kontratatu zituzten eta, era berean, enpresa horietatik hamarrek azken ordainketa egiteko (%40) dokumentazioa aurkeztu dute.

Hau guztia kontutan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Hitzarmenean jasotzen den moduan, ondorengo enpresei azken ordainketa (%40) egitea.

ENPRESA	KOPURUA	LANGILEA
GOROLDI, S.L.U.	4.048,00 €	S.V.S.
ITURRIONDO JATETXEA	16,20 €	A.D.T.
ASTEASUKO UDALA	3.604,60 €	A.F.I.
FERROARTE S.L.	3.155,16 €	JL.T.F.
FRUTAS URKOLA, S.L.	4.183,20 €	M.A.
COMERCIAL S. MARCEL, S.L.	1.752,76 €	C.G.B.
BRIDGE, 2005, S.L.	3.864,80 €	L.F.L.
TODO TODO SUPER, S.L.	3.531,83 €	CA.A.
JAVIER BLANCO FERNANDEZ Y OTROS, C.B.	1.488,94 €	G.A.E.
IRATZE LORAZAINTZA, S.L.	8.152,96 €	J.S.T./M.G.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Enplegu departamentuari eta adierazitako enpresei.

3.- J.U.I.ren eskaera: Zergabilketa exekutiboan duen zorra zatikatzea

Bi mila eta hamalauko abenduaren zazpian, J.U.I-k zergabilketa exekutiboan duen zorra 6 epeetan zatikatzea eskatu du. Zorraren kopurua 8.305,96 eurokoa da.

Tolosako Ordenantza Orokorreko Zergak eta Udal Zuzenbide Publikoaren Bestelako Sarrerak Kudeatzeko eta Biltzeko ordenantzak, bere 2. eranskinak, 6.000 eta 12.000 euroko zorretan aplazamendua edo zatikatzea eskatzeko gehienezko epea urte 1 dela dio eta banku bermea aurkeztu behar duela.

9. artikuluko 5. atalak dio: “ ***Atzeratzeak edo zatikatzeak indarrean dagoen berandutze interesa sortuko du***”.

Bi mila eta hamarrekota ekainaren 10ean, Udal Bilkurak artikuluko berri bat onartu zuen. Honen arabera edozein izaeretakoa zerga zorren ordainketa zatikatu edo geroratzeko, kopurua 100.000 beino gehiago ez denean eta ordaintzeko epea gehienez 5 urte denean, bermea ez aurkeztea erabaki daiteke.

Hortaz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- J.U.I.ri zergabilketa exekutiboan duen zorraren ordainketa zatikatzea. Kopurua: 8.305,96 €.

BIGARRENA.- Zatikatzeko honen ondorioz, berandutze interesak kobratzea, banku bermea aurkeztu gabe. Espedientean azaltzen dira epeak eta kopuruak.

4.- Ataria proiektuaren bideragarritasunen plangintza eta proiektu komunikatiboa.

Bi mila eta hamahiruko maiatzaren 31n, Gobernu Batzarrak Tolosaldea Komunikazio Taldeari (TKT) 8.400 euroko diru laguntza ematea jo zuen ontzat bideragarritasun plangintza eta proiektu komunikatiboa egiteko. Aipatu taldeak proiektu komunikatiboa egin du eta baita bideragarritasun plangintza ere, baina azken honetan 2014ko aurreikuspen ekonomikoak soilik jarri ditu. Udalaren ustez bideragarritasun plangintza batek beste pare bat urteko aurreikuspenak ere landu beharra dauzka.

Hori dela eta, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartutako diru laguntza horren erdia orain ematea, hau da, 4.200 €.

BIGARRENA.- TKTri martxoaren 31rainoko epea ematea, bideragarritasun plangintzari falta zaizkion datuak eta egokitzapenak aurkezteko.

HIRUGARRENA.- TKTri adieraztea aipatutako data baino lehen ekarri beharko duela bideragarritasun plangintza amaitua eta orduan jasoko duela diru laguntzaren beste erdia (4.200 €).

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Hezkuntza eta Euskara departamentuari, Kontuhartzaitzari eta TKTri.

5.- 39/2013 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzaitzak 39/2013 faktura zerrenda aurkeztu du; 152.821,95 €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 39/2013 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:15etan.

Beh. Beh.ALKATEA

IDAZKARIA